

Montehermoso. Liburuaren Egunean, 'Irakurketa Erraza' kontzeptua aurkeztuko dute lehenengoz Araban

Liburuaren Nazioarteko Egunarekin lotutako jardueren barruan, Montehermoso kulturuneak *irakurketa erraza* ezagutarazteko jardunaldi bat antolatu du. Euskadin berria den kontzeptu horrek irakurtzeko edo ulertzeko zailtasunak dituzten herritarrei –% 30 inguru– irakurketa hurbilarazteko egitasmoa biltzen du.

Datorren apirilaren 23an aurkeztuko da lehenengoz Araban *Lectura Fácil Euskadi-Irakurketa Erraza* ekimena, Montehermoson, hain zuzen. Joan den urtearen bukaeran sortu zen ekimena, *irakurketa errazaren* kontzeptuari dagokionez Euskal Autonomia Erkidegoan zegoen hutsunea betetzeko, eta hori sustatu eta garatzeko erreferentzia bihurtzeko asmoz.

Aurkezpena 19:00etan hasiko da. *Lectura Fácil Euskadi-Irakurketa Erraza* ekimenaren sortzaile Blanca Matak kontzeptua zertan den azalduko du, bai eta kultura zein informazioa eskuratzeko eta irakurtzeko zailtasuna pizteko duen ahalmena ere. *Irakurketa Errazak* hainbat arrazoiengatik irakurtzeko edo ulertzeko zailtasunak dituzten pertsonen % 30– irakurketa hurbilarazteko bide ematen du: etorkinak, adinekoak, adimen ezinduek, ikasteko zailtasunak dituztenak, analfabeto funtzionalak edo eskolaratze mugatua izan dutenak.

Jardunaldian irakurketan interesa duen edonork har dezake parte, eta bereziki irakurketa erraza helburu pertsonal edo profesionalekin garatu nahi dutenak: kultura, hezkuntza edo argitalpen alorrekoak, administraziokoak, kontzeptuaren xede diren taldeekin lan egiten duten gizarte elkarte edo erakundeak...

Aurkezpenean *Lectura Fácil Euskadi-Irakurketa Erraza* ekimenarekin lankidetzan hitzarmenak sinatu dituzten elkarteetako ordezkariak ere hartuko dute parte, hala nola, Down Araba-Isabel Orbe, Bizitza Berria eta Saregune.

Irakurketa demokrazia eta irakurketaren bidezko gizarte integrazioa dira ekimenaren oinarriak, eta zenbait irizpide (literarioak, informatiboak, ikus-entzunezkoen alorrekoak...) baliatuz landutako materialei esker pertsona askok irakurketaz gozatu ahal dute, plazer eta eskubide gisa.

Bookcrossing 2013

Bestetik, Montehermoso kulturuneak liburuak libre uzteko leku finkoa ezarriko du, klaustroan, urte osoan herritarrek liburuak nahierara utz ditzaten, edo bertan utzitakoak hartu.

Gainera, Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzeko, apirilaren 19tik 26ra arte liburuak barreiatuko dira hiriko parke, markesina, eraikin publiko eta beste leku batzuetan, bai eta Montehermoson ere, noski.

Irakurri, gozatu eta utz itzazu berriro aske www.bookcrossing.com gunean. Anima zaitetz bookcrossing egiten!

Vitoria-Gasteiz, 2013ko apirilaren 16an